



IGOR ASTIBIA ▶ PRESO OHIA

## «Ez dut uste kartzelan pasatakoa denbora galdua izan denik»

**LEITZA** ▶ Presoaldi prebentiboan bi urte igaro ostean, pasa den asteazkenean utzi zuten aske

**ESPETXE POLITIKA** ▶ «PSOE gobernuan dagoenetik okerrera egin du azken urteetan», dio ▶ 7



Igor Astibia bere alabarekin. N. G.



## ‘Esperientziak’ proiektuan oinarrituriko ‘Kontu-jaten’ liburua idatzi du Iturbek

**TOLOSA** ▶ 12 emakumeren elkarrizketak aintzat hartuta, haurtzarora eta gaztarora nola igaro zituzten kontatzen du Arantxa Iturbe kazetari alegiarrek, narrazio bidez. «Hunkigarria izan da zer bizimodu izan duten jakitea, harrigarria irribarrez kontatzen ikusteak; hitz batean, aberasgarria», dio idazleak. INIGO TERRADILLOS ▶ 3

**LEAUBURU** ▶

**Arrospide, Nazioarteko Aizkolari Txapelketan**

Gaur ekingo dio, Lekunberrin ▶ 6

**VILLABONA** ▶

**Bidaiak, eskalada eta igoyerak hizpide**

Etzitik, Aizkardiren Mendizale Astea ▶ 4

**GAUR Zinema Etxean 2**

8 DVD euskaraz

taigori rekin

berria

+ 4,50 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

CAJA LABORAL EUSKALDUN KUTXA

EUSKARA ▶

ESTI EZEIZA

Osakidetzako lan eskaintza publikoko azterketak abenduaren 6an, 7an eta 8an izango dira BECen. Hala, 4.261 lanpostuetatik %20etan bakarrik jakin behar da euskara postua lortzeko. Gainerako %80etan euskara meritu hutsa izango da.

Hau guztia dela eta, Euskaren Gizarte Erakundearen Kontseiluak deialdi hauek euskari eskaintzen dizkion garrantziaren ondorioak salatu ditu: «Osakidetzako lau langileetatik hiru erdaldunak izaten jarraitzea eta langile erdaldunek euskaldunen hizkuntz eskubiak urratuko dituztela». Behatokiaren ustetan, honen beste emaitzeko bat izango da: Osakidetzan plaza lortzen duten erdaldunak lanpostua lortu ostean euskaldundu beharko direla, eta hau, diru publikoa erabiliz egin beharko dute.

Behatokiak emandako datuen arabera, 2004an 3.471 herritarrek eskaera egin zioten Osakidetzari hizkuntza-esku-

# «Osakidetzako 4tik 3k ez dakite euskaraz»

## Behatokiak «osasan zentru publikoetan egindako urraketak» salatu ditu



Tolosako anbulategia Osakidetzako zentruetako bat da. E. EZEIZA

bideak bermatzeko. Horren adibide, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak euskarazko zerbitzua eskatu eta jaso ez dutenen zenbait testigantza jaso ditu. Hauetako batzuk Tolosaldean eman dira. Hala, galdetzen duena da, «nola eta noiz emango zaion bukaera bidegabeak horri». Honez gain, bi galdera luzatzen ditu: «Kexen zain egon behar al du Osakidetzak herritarren eskubiak bermatzeko?». Bestalde, «bigarren mailakoak al dira zerbitzua euskaraz nahi duten herritarrek?».

### Tolosaldean emandakoak

Pasa diren lau urteetan eskualdeko osasan zentruetan emandako zenbait kasu bildu ditu

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, luzatutako txosten batean. Horien artean daude ondorengo gertaerak: espediente baten arabera, emakume batek ezin izan zuen erditze ikastaroa euskaraz egin Lizartzako osasun etxean. Irtenbide gisa, beste herri batzuetan euskaraz egiteko aukera luzatu zioten. Hala ere, idatziz jakinarazi zioten, hizkuntza hori ez zekien pertsona bakarria egonez gero ikastaroa gaztelaniaz egingo zela.

Beste kasu batean, pertsona batek neumologoarengana joateko hitzordua zuen Tolosako osasan etxean, eta ez medikuak, ez eta erizainak ere, ezin izan zioten zerbitzua euskaraz eskaini.

2003an Ibarren emandako beste kasu batean berriz, gaxoa fisioterapeutarengana joan zen errehabilitazioa egitera. Hemen, ez medikuak, ezta laguntzaileak ere, ezin izan zioten euskaraz eman, eta herritarra kostata komunikatu ahal izen zen haiek.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

## Beste herrialdeetako autodeterminazio prozesuekin Euskal Herrikoa alderatuz

### Elena Beloki eta Pat Rice izan ziren solaskide herenegun iluntzean

E. EZEIZA

Autodeterminazioa izan zen mintzagai herenegun iluntzean udaletxean egindako mahai-inguruan. Honetaz hitz egiteko bi aditu elkartu ziren Martxelo Otamendiren alboan: Elena Beloki, Herri Batasunako politikari ohia eta Pat Rice, Irlandako Sinn Fein alderdi errepublikarreko kanpo harremanetako arduradun ohia. Laurogei lagun inguru bildu ziren, eta adi entzun zituzten bi politikari hauek azaldutakoak.

Hasteko, Belokik autodeter-

minazioa zer den eta zer ez argitu zuen. Bestalde, Euskal Herriko egoera, nazioartean eman diren beste prozesu batzuekin alderatu zuen. Besteak beste, Hego Afrikakoarekin, Montenegrokoarekin, Bangladeshekoarekin eta Saharakoarekin.

Pat Rice politikari ohiak Irlandan emandako prozesua eta gaur egun bizi duen egoera azaldu zituen. Hala, bere ustez, «euskaldunek gurea bezalakoetatik ikasi dezakezue, zer egin dugun ongi eta zer ez konparatuz».

### Zenbait ezaugarri

Belokik azaldu zuenez autodeterminazioak historian zehar ikuspegi ezberdinak izan ditu eta hau izateko herri bat izateko nahia beharrezkoa da. Autodeterminazioa zerbait dinamikoa da, prozesu politiko bat da, eta fase ezberdinak ditu: autoafirmazioa, autodefinizioa, autodelimitazioa, antolakuntza eta gestioa.

Prozesu honek hainbat kosa ditu: estatuen jakobinismoa, estatuen barneko itunek autodeterminazioa ez onar-



Elena Beloki, Martxelo Otamendi eta Pat Rice, mahai-inguruan. E. E.

tzea, nazioarekiko legedia prozesua martxan ez jartzea, zein den subjektua zehaztea eta erreferenduma zenbat aldiz egin behar den konkretatzea. Baina arazo nagusia lurraldeatasuna da, Euskal Herriaren kasuan, hau, hainbat estaturen baitan banatua dago. HBko politikari ohiaren esanetan, «nazioarteko zuzenbide eta legedia estatuen aldekoa da; aitzitik, ez du biderik jartzen

autodeterminazioa ezartzeko, nahiz eta teoriarik onartu. Hauek pertsonen eskubideez hitz egiten dute, eta ez herrialdeez, ierarkia bat dago eskubideen artean.

Bestalde, maiz autodeterminazioa akordioarekin parekatzen da, baina ez da berdina. Dena den, akordioa funtsezko elementua da. Autodeterminazioa prozesua bera da, eta hemen galdera bat aurkezten da.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

### ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

POLITIKA ▶

## Baldintza demokratikoen eskaera

**Erredakzioa** ▶ *Baldintza demokratikoak orain Euskal Herriarentzat* lelopean, manifestazioa deitu zuen atzo arratsaldean Segik. Hala, 30 lagun inguru elkartu ziren Triangulo plazan Jarrai-Haika-Segiren epailetaren sententzia Espainako Epaitegi Gorenak aztertu behar duela salatzeko, izan ere, 2005ean, Espainiako Auzitegi Nazionalak legez kontrako erakundetzat hartu zituen. I. T.



MENDIA ▶

## Mendiko materialen azoka Oargin, astelehenetik

ERREDAKZIOA

Oargi elkarteak Mendi Hamabostaldia antolatuta du datorren astelehenetik aurrera. Honen baitan, mendiko material azoka egingo dute elkarrean bertan. Materialak eramateko asmoa duenak 637 83 03 80 zenbakira deitu beharko du.

KULTURA ▶

# ‘Esperientziak’-en oinarritu den ‘Kontu-jaten’ liburua idatzi du Arantxa Iturbek

12 emakumeren lekukotzak hartuta, haurtzaroa eta gaztaroa nola igaro zituzten kontatzen du liburuan narrazio bidez; «oso aberasgarria» izan dela dio egileak

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa 750 Fundazioak enkargaturiko *Esperientziak* proiektuan oinarrituta dagoen *Kontu-jaten* liburua idatzi du Arantxa Iturbe Tolosan bizi den kazetari alegiarra. Hainbat eta hainbat pertsona helduei egindako elkarrizketen bitartez, XX. mendeko memoria historikoa berreskuratzea izan du helburu bezala proiektu honek, eta Iturbek elkarrizketa horiek baliatuz, gauzatu du Alberdania argitaletxeko *Zerberri* sailak kaleratu duen lana.

Genero hibridoa nagusitzen da liburuan. Kazetaritza ere baduela esan behar da, erreportai luzea baita; baina, badu literaturatik ere, 12 emakumeren testigantzatik ateratako puntu batetik egileak balio literarioa erantsi baitio narrazioaren bidez. Atzo eginiiko aurkezpenean, Alberdania argitaletxeko Inazio Mujikak Iturberen begirada ere nabarmendu nahi izan zuen, izan ere, «besteoi beharbada oharkabean pasatzen zaizkigun gauza txikiak jasotzeko ahalmen berezia erakutsi du». Bestalde, Tolosako Udala eskertu nahi izan zuen, «proiektu honetan laguntzeagatik».

Arantxa Iturbe liburua eragileak proiektuari nola ekin



Arantxa Iturbe eta Alberdania argitaletxeko Inazio Mujika, atzo, aurkezpenean. I. TERRADILLOS

zior azaldu zuen; «750 Fundazioetik zer egiteko prest egongo nintzen galdetu zidaten, eta nik herriko itzalean dauden adineko emakumeengana joan, haien bizitzaz galdetu eta hori nire erara gustura kontatuko nuela erantzun nien. Asko gustatu zitzaizaien ideia». Dagoeneko Okupgraf enpresa ari zen lanean elkarrizketak egiten, eta haiek materiala eman zio-

ZUZENKETA ▶

Atzoko HITZAN Ibiurko obrei buruzko albistean, Baliarainek ia 200 biztanle dituela zekarren, baina 95 biztanle ditu. Bestalde, Foru Aldundiko errepide saileko langileak dira errepideko lanetan ari direnak.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Zeuk idatzi.** Tolosaldeko eta Leitzaldeko berriak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webguneak, *zeuk idatzi* izeneko atalean. Animatu eta sartu zure berria!

FITXA TEKNIKOA ▶

**Izenburua.** *Kontu-jaten*.  
**Egilea.** Arantxa Iturbe.  
**Argitaletxea.** Alberdania.  
**Saila.** Zerberri.  
**Orri kopurua.** 196.  
**Kaleratze data.** 2006ko azaroa.  
**Salneurria.** 13,50 euro.

ten Iturberri. 12 emakumeren lekukotzak hartu ditu alegiarra, hirurogeita hamar urteko gorakoak denak. Esperientzia desberdineko emakumeak direla azaltzen du egileak, baina denetan galdera bat errepikatzen zela: 'Baina zer jakin nahi duzu?'. «Beraien bizitza besteena bezalakoa izan dela zioten, ezer garrantzitsurik kontatzeko ez balute bezala; nik ea zoriontsuak diren, txikitan zein amets egiten zituzten, ea lagun onak zituzten, amak muxurik ematen ote zien, noiz maitemindu ziren... gauza garrantzitsu horiek guztiak jakin nahi nituen», dio. Galderak egina eta erantzunak zeudenez, kontu-jatea izan dela bere lana azaltzen du. «Atsegina izan da kontu-jaten aritzea, hunkigarria zer bizimodu izan duten jakitea, harrigarria irribarrez kontatzen dutela ikustea, hitz batean, aberasgarria izan da», dio *Kontu-jaten* liburua eragile atzetik egin duen lanaz gogoe-ta egitean.

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko llantak. Tebuarekin. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

VILLABONA ▶ MENDIA

# Bidaiak, eskalada, mendi ibilaldiak eta igoerak hizpide

Aizkardik antolatutako 23. Mendizale Astean, hitzaldiak Gurean etzitit aurrera

IMANOL GARCIA

Aizkardik Mendizale Astea antolatuta du beste behin, etzitit hasi eta hurrengo igandera arte. Dagoeneko 23. ediziora iritsi da Villabonako mendizaleen taldeak antolatzen duen ekitaldia. Euskal Herri mailan ezagunak diren mendizaleak eta bidaiariak, herrikoek eta ingurukoek egindakoekin uztartu dituzte. Hala, bidaien, eskaladaren, mendi igoeren eta ibilaldien berri izango dute hitzaldietara joaten direnek.

Jose Ramon Agirre Marron bidaiari eta mendizaleak irekiko du Mendizale Astea. Zeelanda Berria izango du hizpide, bertako mendi, parke nazional, kosta, biztanle eta abarren berri emanaz. Josune Bereziartu eskalatzailerak ezagunaren txanda izango da bigarren egunean. Egin dituen markak eta bere kirolean bizitako une onen berri emango du.



Aizkardiko kideek Euskal Herriko hiriburuak uztartzeko egindako ibilaldien berri emango dute. HITZA

Inguruko mendizaleek ere bere tartea izango dute. Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola zizurkildarrek udan Gasherbrum II zortzimilako mendia egin zutenean bizitako berri

emango dute. Zenbait gazte libelabonatarrek ere beraien esperientziari buruz hitz egingo dute. Aurten Perun izan dira, Andeak mendilerroan. Azkeneko hitzaldia Aizkardiko kide-

ek emango dute. Euskal Herriko zazpi hiriburuak lo' tu zituzten, 38 mendi ibilalditan banatuta, eta horixe erakutsiko dute Gurea aretora joaten direnei diapositibak erabiliz.

## EGITARAUA ▶

Emanaldi guztiak 20:00etan dira, Gurea aretoan.

**Etzi, hilak 20.** *Zeelanda Berria*, Jose Ramon Agirre Marronen eskutik.

**Asteartea, hilak 21.** *Josuneren unerik onenak*, Josune Bereziarturen eskutik.

**Asteazkena, hilak 22.** *Gasherbrum-II*, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola mendizaleekin.

**Osteguna, hilak 23.** *Mendillero zuria, Peru*, gazte libelabonatar batzuen eskutik.

**Ostirala, hilak 24.** *Euskal Herriko hiriburuak uztartuz*, Aizkardi M.E. ren eskutik.

**Igandea, hilak 26.** Mendi ibilaldia eta bazkaria.

Astea bukatzeko ohiko mendi ibilaldia eta bazkaria antolatuta dute. Igandean izango da hori. 08:30ean elkartuko dira Olaederra kiroldegian eta kanaletako ibilaldia egingo dute. Ondoren, Amasako Alustiza landaturismoan elkartuko dira bazkaria egiteko. Izena eman nahi duenak astean zehar hitzaldietara gerturatu eta Aizkardiko kideren batekin harremanetan jarri besterik ez du egin behar.

**AHORRONET > GO**

%5

U.T.B. lehenengo urtean

**Hileroko aurrezki txikietarako Aurrezki Kontua**

- Gutxienezko diru-sarrera: 30€ hilean
- Gehienezko diru-sarrera: 300€ hilean

---

- Kuota hileroko sartzetik da AhorroNet-Go-n eta bezeroak edozein unetan aldatu dezake kopurua.
- Interesak urtean behin ordaintzen dira.
- Kuotarik sartzetik ez bada, ez da komisiorik edo penalizaziorik izango.
- Urteko interesak: %5 (%5eko U.T.B.)
- Eskaintza 2006/07/31ra arte egongo da idarrean.
- Internetetik bakarrik, eta 18-30 urte bitarteko gazteentzat.

Euskadiko Kutzak gazteen alde egin duen apustua

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

## ANOETA ▶ TEKNOLOGIA BERRIAK

# Herritarrek administrazio datuen kontsulta egin dezakete Internet bidez

### ERREDAKZIOA

Anoetako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiko Udala Zerbitzu Telematikoen plataforman sartu berri da. Zerbitzu honen bitartez teknologia berrien erabilerrarekin, Gipuzkoako udal desberdinetan eskaintzen diren zerbitzuak eskuratu ahal izango dira. Anoetako Udalak ohar batean azaldu duenez, Hemendik aurrera, anoetarrek datuen kontsulta egin ditzakete Internet-konexioa duten ordenagailuetatik, udaletxera hurbildu gabe.

Herritarrek eta enpresek urtean zehar kudeatutako hainbat datu bilatu eta eskura ditzakete: errolda datu pertsonaletatik, Udalarik ordaintzen zaizkion tasak eta zergak, horiek eragiten dituzten ordainagiriak eta abar. Internetetik zerbitzu ohikoak ere eskatu ahal izango dira: bizileku-ziur-

tagiriak, bizikidetzakoak eta abar. «Plataforma honek erakundearen arteko komunikazio zuzena sustatuko du eta eskaintzen duten pertsonen, komunikazio zuzena eta arina erraztuko die zerbitzu hau barneratu duten erakundeekin», dio Udalak.

Sisteman sartu eta erabili ahal izateko, herritarrek identifikazio pertsonala eduki behar dute. EAEko administrazioak martxan jarritako Izenpe txartel digitala ere onargarria da; baita norberaren pasa-hitza ere. Identifikazio pertsonala ez duten herritarrek eta zerbitzu hau erabili nahi izanez gero, udaletxera hurbildu beharko dira gakoak eskatu eta zerbitzuan alta hartzeko. Udalak KZ-gunetik zerbitzu telematikoa erabili ahal izateko ikastaro bat martxan jartzeko asmoa du eta Izenpe txartelak eskuratzeko aukera ematea ere.

## ANOETA ▶

### Mendi Asteko ikastaroetan izena emateko aukera

Anoetako Udalak Mendi Astea antolatu du hilaren 24tik abenduaren 2ra. Tartean bi ikastaro izango dira. GPSari buruzkoa bat —6 euro balio ditu— eta mendiko medikuntza eta mendi sorospen ikastaroa bestea —doan izango da—. Izena emateko, udaletxean, hilaren 22a baino lehen.

## ANOETA ▶

### Bertso bazkarira joateko izen-ematea zabalik

Hilaren 25ean Autodeterminazioaren Aldeko Eguna egingo dute Anoetan. Bertan izango den bertso bazkarirako izena eman daiteke Itzuli tabernan. Bestetik, egun horretako lanetan laguntzeko (bazkaria prestatzen, zerbitzatzen, ontziak garbitzen, kontzertuko txandak...) zerrenda ere Itzulin dago.

IKAZTEGIETA ▶ ATLETISMOA

# Kros herrikoia klasikoa bihar

Helduenaren aurretik haurrena egingo dute, biak ere herrian zeharrekoa

NEREA URBIZU

Bihar Ikaztegieta XVI. Kros herrikoia korrituko dute. 10 kilometroko lasterketa izango da, eta urteroko ibilaldia da, hau da; Alegia aldera hasten da, berriz Ikaztegieta aldera hartu eliza atzetik, Legorreta aldera jo, eta buelta. Hori hiru aldiz egiten dute, eta bukatu, hasten den leku berean bukatzen dute, hau da; udaletxean.

Aurretik haurren krosa egingo dute: kilometro bat egiten

dute herrian zehar. Hau 10:45ean egingo dute. 11:00etan helduena hasiko da.

Izena emateko asko erraztu dute Herrigintza, Kultur eta Kirol elkarteek, antolatzaileek, hain zuzen: www.herrikrossa.com helbidean, 6 euroren truke, eta bestela egunean bertan, 09:00etatik 10:00etara bitartean, 8 euro ordainduta.

Atzo arte «50 korrikalarik eman zuten izena. Normalean, 200 korrikalari inguruk hartzen dute parte, eta gehienek



lazko kros herrikoian 179 lasterkarik hartu zuten parte. HITZA

PARTE-HARTZAILEAK

Normalean 200 korrikalari inguruk hartzen dute parte, eta gehienek egunean ematen dute izena

egunean bertan ematen dute izena», zioen Joxe Mari Garmendiak, kiroldegiko ardura-dun eta antolatzaileak.

Lasterketa bukatu ondoren, antolatzaileek hamaiketako eman dute herriko pilotalekuan, eta «bertan sortzen den giroa oso ona izaten da: hori da ia onena».

Markarik onenak Jose Jabier Cuadrado ordiziarrak —31 minutu— eta Ixiar Urdangarin hernaniarrak —37 minutu— dauzkate. Ea eskualdeko baten batek aurten hobetzen duen, ondorengo giroaz gozatzeko besterik ez bada ere.

IKAZTEGIETA ▶

## Leire Olaberria mundialetan hasiko da gaur

Sydney-en (Australia) dago Leire Olaberria txirrindularia, Eustrak-Duranguesado pistako taldearekin mundialeko lehenengo probak egiteko eta 10 egun egingo ditu han. Ikaztegieta gaur eta bihar egin beharko ditu scratch, puntuazioa eta jazarpe probak. Abenduan, aldiz, Moskura joango da bigarren Munduko Kopako lehia gaitera.

UGARTE ▶

## Gaztain jatea gaur zortzi, elkartean

Hilaren 25ean Ugarten gaztain jatea egin behar dute elkartean. Ugarteko elkarteak batzordeak laugarren urtea du hau antolatzen. 20:30ean izango da, 15 euroren truke. Goikoetxea enean eman behar da izena hilaren 22a baino lehen. Sahieskia, gaztainak, gazta eta «kafe konpletoa» izango dira jangaiak. Afari on bat eta giro beroa nahi duenak badu aukera.



Gaztainak erretzen, Alegian. HITZA

PILOTA ▶

## Zazpi-lurriko pilotari asko, finalerdietan

Gaur DVko partida daukate Renobales-Mariñelarenak eta Lasa-Garmendiak elkarren kontra 17:30ean, Zumarragan. Bihar, berriz, Azkoitiako frontoian Euskadiko Ope-naren finalerdia dauka Garmendiak Erroizenearekin Lazkoz-Resanoren kontra. Finalerdietan hasi dira maila batzuk eta gehienetarako sailkatu dira Zazpi-lurrikoak. Garmendia, onena.

ALEGIA ▶

## 'Begoña andereñoari' omenaldia

Gaur Alegian Azaro Kulturaren baitan Loatzo Eguna ospatu behar dute. Honez gain, Alegiak, hainbeste urtetan irakasle izan den *andereño Begoña*, Begoña Azpeitia jubilatutako berriari, hain zuzen, «omenalditxo» bat egingo diote. Eguerdian izango da, Loatzokoei kalejira bukatzen dutenean, plazan. Eguerdialdi txarra egingo balu, aldiz, pilotalekuan.

ALEGIA ▶ KULTURA

ERREDAKZIOA

Bihar Txintxarri Eguna ospatuko dute Alegian, Txintxarri Abesbatza Kultur elkarteak antolatuta. Abesbatza urteetan abesten egon diren hildako abeslariak eta elkarteak bazkideei zuzendutako jaia da. Aurten gainera, Alegian urtez apaiz egon zen Lukas Guridi konpositorearen lanak izango dira nagusi.

Biharko egitarau xumea antolatuko dute abesbatzetakoek. 11:15ean mezan abestuko dute helduek. Guridik berak konposatutako *Flos Carmeli* mezik *Kyrie* eta *Gloria* kantatuko dituzte. Guridik Alegiko herriari eskaini zion.

12:15ean kontzertua eskainiko dute Txintxarri Txikik eta

Txintxarri abesbatzak. Idoya Iraola eta Garbiñe Orbegozo izango dira zuzendariak.

Jarraian, nagusiek hartuko dute lekukoa. Guridik konposatutako hainbat lan eskainiko dituzte. Kontzertuan entzungo den beste kantu berezia Sarasolak konposatutako *Zure boza* da. Joxe Gastesiri eta Txintxarri abesbatzari eskainita dago, Sarasolak 1985ean Txintxarri abesbatzarekin Alemaniara egindako bidaia go-goa.

14:30ean, aldiz, bazkari-legea egingo dute Txintxarri elkartean. Txintxarri Abesbatza Kultur Abesbatzak eskerrak eman nahi dizkio Txintxarri elkarteari bazkaria antolatzeko azaldu duen jarrera onagatik eta egindako ahaleginagatik.

# Biharko Txintxarri Egunean Lukas Guridiren obrak izango dira entzungai



Guridi erdian, eta berak zuzendutako Alegiko gizonezkoen korua. HITZA

## ARAMBURU

**Salgai (Tolosa)**, Pisuak Laskorain 3, kalean.  
**Salgai (Tolosa)**, Ilespaindegia egokitua Lurren.  
**Salgai (Tolosa)**, Belardenda, kale Nagusian, negozioa marxan.  
**Salgai (Tolosako lurren)**, Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal bikia, oso modu onean.  
**Salgai (Tolosa)**, Lokalak Enperadore kalean eta kale nagusian.  
**Salgai**, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa)**, Garajeak, Leidor azpian.  
**Alokatzeko**, Garajeak, Araba etorbidean eta Babiller Zakiñan (gettoki ondoan).  
**Alokatzeko**, Lokalak, Arbol de Gemikan, Allin eta Laskorain kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

LEABURU ▶ KIROLA

# Anjel Arrospide Nazioarteko Aizkolari Txapelketan

Gaur hasiko da Nazioarteko Aizkolari Txapelketa Lekunberrin; guztira 16 aizkolari ariko dira elkarrekin lehian

MADDI SOROA

Anjel Arrospide Nazioarteko Aizkolari Txapelketan hartuko du parte beste hamabost aizkolariarekin batera gaur 17:00etan Lekunberriko udal pilotalekuan.

Nazioarteko Aizkolari Txapelketak hiru kanporaketa saio izango ditu. Lehena, esan bezala, gaur izango da 17:00etan Lekunberriko udal pilotalekuan. Bigarren saioa toki berean izango da baina 20:00etan. Azkenik, Legutioko (Araba) pilotalekuan burutuko dute hirugarren saioa bihar eguardian.

Anjel Arrospidekin batera, hamar izango dira Euskal Herriko aizkolariak: Luismari Txapartegi, Donato Larretxea, Miel Mindegia, Floren Nazabal, Joxemari Olasagasti, Fausto Murgertza, Antonio Senosiain, Joxe Etxebeste eta Joxejuan Barberena eta Arrospide bera.

Atzerriko aizkolariak dago-kionez, Australiako Laurence O'Toole, David Coffey eta Brent Rees —Aizkolari Azkarrenaren Txapelketako garailea—, Kana-dako Bill Bischoff; Zeelanda Berriko Shane Jordan eta Ame-

riketako Estatu Batuetako Waterfield izango dira euskaldunekin batera lehian ariko diren aizkolariak.

Guztiek ere, Urrezko Aizkolarien Txapelketako egituraketa jarraitu beharko dute, sei proba jokatu beharko baitituzte: erlojuaren aurka, zutika, zeinek kolpe gutxiago, bi egurrera —zutika eta etzanda—, 60 ontzakoa eta lau egurrera. Denek denen aurka jokatu dute eta propaz-proba puntuak metatzen joango direnez, punturik gehien lortzen duen aizkolaria irtengo da garaile.

Maila handiko norgehiagoka izango da ezbaierik gabe, Floren Nazabal eta Donato Larretxea txapeldunetz gain, Australiako Laurence O'Toole ere ez baita atzean geratzen. Ikusi beharko da zer nolako papera betetzen duen Anjel Arrospide leaburuarak.

Gogoratu, Nazioarteko Aizkolarien Txapelketako finala, azaroaren 25ean burutuko dutela, larunbatarekin, Azpeitiko Landeta kiroldegian. Zortzi aizkolari ariko dira guztira lehian, 17:00etako eta 23:00etako saioetan.



Anjel Arrospideren artxiboko irudi bat. INIGO TERRADILLOS

## Arrospideri omenaldia

Hilaren 26an omenaldi beroa jasoko du Anjel Arrospidek Leaburuko herritarren eskutik. Leabururen izena Euskal Herriko lurraldeetan eta nazioartean zabaldu izanagatik eta aizkolari gisa egindako lana errekonozitzeko asmoz —gogoratu Lehen Mailan 6 txapela irabazi dituela— egun polita antolatu dute Udal ordezkari eta herritarrek. Gogoratu, bazkarirako txartelak hilaren 21a baino lehen erosi behar dituztela herritarrek, astean zehar udaletxean eta asteburuan ostatuan 20 euroren truke. ◀

## EGITARAUA ▶

### AZAROAK 26 (IGANDEA)

**10:00etan.** Diana Tolosako dultzaineroekin.

**10:30.** Meza herriko elizan.

**11:15.** Herriko dantza taldearen saioa.

**11:30.** Herri kirolen jaialdia: Aimar Irigoien harrijasotzailearen erakustaldia, Angel Arrospideren erakustaldia eta omenaldia, Esnaola anai trontzalariak Azurmendi aizkolarien aurka.

**14:30.** Herri bazkaria herri ostatuan Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin eta Saioa eta Alabier trikitilariekin batera. **Egun osoan zehar.** EHNA egiteko aukera.

BERROBI ▶ KIROLA

## Gaur hasiko dira Berrobiko XV. Frontenis Txapelketako partidak

190 parte-hartzaile izango dira denera, iazkoan baino gehiago

M. SOROA

Gaur ekingo zaie Berrobiko XV. Frontenis Txapelketako partidei. 08:00etan hasi eta 22:00ak arte, Berrobiko frontoia jendez gainezka izango da, frontenis

zaleak nor baino nor ariko baitira garaipena lortzeko gogoz.

Aurtengoan, iaz baino jende gehiagok hartuko du parte, guztira 190 pertsona izan baitira izena eman dutenak. Hiru sailetan banatuko dira parte-

hartzaileak: 64 izango dira banaka ariko diren gizonezkoak; binakako sailean, berriz, 69 izango dira gizonezkoak eta 9 emakumezkoak.

Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera «aurten ez da jende asko ibili Berrobiko frontoian entrenatzen eta jende gutxi izango zela uste genuen, 190 parte-hartzaile dago, ordea, eta oso gustura gaude; gainera, inoiz baino neska gehiagok hartuko du parte».

Gogoratu, asteburu honetan bikoteka arituko diren gizonez-



Iazko Frontenis txapelketan garaile izandako jokalariek. INIGO TERRADILLOS

koen txanda izango dela. Banakako mutilak, berriz, datorren larunbaten ariko dira eta emakumezkoek datorren igande goiza izango dute partidak jo-

katzeko eguna. Azaroaren 25 eta 26an hiru sailetako kanporaketa partidekin jarraituko da. Finala, abenduren 7an izango da.

**Beti alai**  
jatezka

**Garaian garaiko janariak**  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

IGOR ASTIBIA ▶ PRESO POLITIKO OHIA

# «Ez dut uste kartzelan pasatako epea denbora galdua izan denik»

Presoaldi prebentiboan bi urte igaro ondoren, pasa den asteazkenean aske utzi zuten Igor Astibia leitzarra

NAIARA GARZIA

Igor Astibia bi urte egon da presoaldi prebentiboan, «epaiketa egin arte fiskalaren ustez alde egiteko arriskua dagoelako». Egoera horretan kartzelan jarraituko zuela espero zuten denek, eta azkenean epaiketa egin baino lehen libre utzi zuten joan den asteazkenean. Gaur ongietorria egingen diote. Elkarrizketak egitea ez duela gustuko azaldu digu, baina barruan jarraitzen duen jendearen egoera salatzeke egiten duela.

## Baldintzapean askatu ondoren, zein da zure egoera?

Epaietaren zain nago. Atxiloketa prebentibo delakoetan 2003-2005 artean 6 edo 7 operazio egin zituzten. Orain lehenengo bi operazioetako jendea epaiketa egin diote eta 18tik 15 libre utzi dituzte. Gu bosgarrenak gara.

## Ongietorria nola bizitu zenuen?

Oso urduri, hankak dar-dar nituen. Aspaldi ikusi ez duzun jendea ikustea oso hunkigarria da. Gainera hainbeste jende egoterik ez nuen espero.

## Eta gaurko omenaldira begira nola zaude?

Alde batetik nire izaera dela eta beti izan naiz nahiko lotsatia, eta bestalde bi urte espetxean igaro ondoren ez zaude espazio irekietara ohituta, ez eta jendeak zuri begiratzea ere.

## Zuk imajinatzen zenuena baino hobea ala okerragoa da kartzela?

Gogorra da zure ingurutik atera zaituztelako, bortizki eta gauez. Kartzelan mito asko daude, beldurrarekin zoaz, labakadak, hiesa... beti entzun dituzu. Hala ere hau nire esperientzia izandu da, ni bi lekutan izandu naiz. Soto del Realen eta Navalcarneron. Badaude Frantziatik eta Espainiatik bueltaketa urte asko daramatzaten presoak. Nik bi urte eman ditut.

## Eta luzeak egin zaizkizu?

Ez. Nik uste ere alabarengatik izandu dela. Hurrengo bisean alaba ekarriko zidatela jakiteak indarra ematen zidan, eta



N. GARZIA

bisetik bisera, motza egiten zitzaidan.

## Nola antolatu zenuen kartzelan emandako denbora?

Han dagoen jendeak asko laguntzen zaitu. Komisaldegitik heldu zara, han egurtu egin zaituzte, ni hiru egunez, eta lur jota iristen zara. Euskal jendeak hartu eta han gauzek nola funtzionatzen duten azaltzen dizute. Gero gomendio pertsonalak ere ematen dizkizute, eta eguna okupatua pasatzeko esan. Horregatik ona da ahal den aktibitate gehienetan izena ematea. Nik ikasteko, kirola egiteko eta irakurtzeko aprobetxatu dut.

## Ze puntutaraino izan zen garrantzitsua euskal preso politikoaren laguntza?

Hori oinarritzakoa da. Polizien eskuetatik heldu zara eta krisituen laguntza da. Zu aurreiritzi batekin sartzen zara eta gero bertako errealitatea ez da

horrela. Kartzelako gatazka handienak drogarengatik eta honekin lotutako zorrerengatik datoz. Nahi adina droga dago barruan, batez ere heroina. Presoak erdi lo izatea komeni zaiela uste dut, ez protestatzeke.

## Nolako da egun normal bat Navalcarneron?

Goizeko zortzietan kontaketa egiten dute: atea irikitzen dizute, eta besoa altxatu beharra daukazu bizirik zaudela adierazteko. Gosalduta eta patioan ematen duzu goiza. Gero bazkaldu (lehenago kontaketa egiten dute berriro), ziegara joan eta funtzionarioek ateak ixten dizkizute. Arratsaldean, berriz patioa joaten zara. Hori bai, eskolara ere joan zaitezke, goizez, hutsik egonez gero, eta guk gure moduloan, hutsa zegoenez, erabiltzeko aukera izan genuen. Horren pareko bizi baldintzarik han ez dut topatu.

Afaldu ondoren beti euskaldunak azkenak gelditzen ginen, kontu-kontari gelditzen ginen. **Jendearen bisitak bizipoza emanen zizuten, ez?**

Bai, baina aldi berean gogorra da. Bidaiarena, hori da niretzako kartzeleko gauzik gogorre-na. Jendeak istripurik izanen duen beldur zara. Egoera hau, nire ustez, preso politiko guztiek in xtrapola daiteke. Kontentzitate nago jendeak oso gaizki pasatzen duela.

## Bisitak joaten zen jendea nola antolatzen zen?

Normalean jendeak egun berean egiten zuen joan-etorria. Adibidez nire neskalaguna eta alaba askotan bezperatik joaten ziren; trenean ere asko ibili dira, garestiago izan arren, baina kotxean ibiltzea baino seguruagoa da. Nik bueltan etorri eta maite ditudan pertsonak hor egotea nahi nuen, eta azken finean, kartzelan egotea denbora kontua zen. Horrela planteatu nuen eta asmatu dudala uste dut.

## Atxiloketa nola gogoratzen duzu?

Kartzela gogorra da, baina kartzelan bizi daiteke, eta lagunak dituzu ondoan... baina atxiloketan ez. Goizeko 01:30ak alde-ra lo ginela, Saioa, neskalaguna, haurduun zegoen eta tinbre joka hasi ziren. Enkaputxatuta zeuden, eta nahiko lasaia izan zen, goizeko ordu horietan polizia enkaputxatua zure etxera sartzea lasaia izan badaiteke. Atxilotzera heldu zirela esan zitaden eta etxea miatzeko baimena zutela. Konfunditu egin zirela pentsatu nuen, baina nire bila heldu nuen ziren. Ondorengo izandu zen gogorrera, Madrileko komisaldegian.

## Zer leporatu zizuten?

Kolaborazioa. Gu zerrenda batean agertzen ginela esaten zuten eta ETAn sartzekotan ginela, eta «sartu baino lehen, ba preso hartzen ditugu». Hori da beraien teoria. Horregatik Askatasunak atxiloketa prebentibo bezala deitzen ditu.

## Inkomunikazioa nola bizitu zenuen?

Inkomunikazioa lege antiterroristean daukaten neurri erabat antidemokratikoa da, tortura ahalbidetzen duen neurri bat. Ezin duzu ez abokatuarekin, ez eta familiarekin komunikatu. Hiru egun irauin ditzake gutxienez eta epaileak nahi izanez gero 5 egun arte luza daiteke. Pelikuletan bezalakoa da. Polizia onak daude, eta polizia txarrak. Hauek jo egiten zaituzte, oihukatu, presionatu... eromena da, eta gero onek sinarazteko txantajea egiten dituzte. Nik ez nuen ezer sinatu. Oso argi daukate bakoitzaren papera, zeinek ikaratu behar

## ESPETXE POLITIKA

«PP eta gero, PSOE gobernuan dagoenetik okerrera egin du espetxe politikak azken urteetan»

## SAKABANAKETA

«Kartzelako gauzarik gogorre-na bidaiarena da. Jendeak istripurik izanen duen beldur zara»

## ATXILOKETA

«Kartzela gogorra da, baina kartzelan bizi daiteke, eta lagunak dituzu ondoan...baina atxiloketan ez.»

ninduen, zeinek jo, zeinek oihukatu...

## Espetxe politika ze egoeratan dago?

PSOE gobernuan dagoenetik okerrera egin du, legez kalean egon behar luketen presoak oraindik espetxean daude, eta sakabanaketa politikak bere horretan jarraitzen du.

## Kartzela eredu bezala zer iruditzen zaizu?

Kartzelak ez du deus soluzionatzen. Ez du ezertarako balio. Pobre break zigortzeko tresna bat da, han aberatsik ez dago, eta drogatzen den jendea irakurte bitartez ez diote laguntzen. Birgizarteratzea ez da existitzen, gezur handi bat da.

## Preso normalekin ere harremanak egin dituzu?

Bai, lagun oso onak egin ditut eta ez ditut ahaztuko.

## Kartzelan irakurri egin duzula esan duzu. Gogoan duzun libururen bat?

Ziegan hain leku gutxi daukazu, askotan ezin dituzula nahi dituzun liburu guztiak eduki, eta orduan liburuak atera egin behar izaten dituzu. Baina bi urte hauetan nire ziegan liburu bat egondu da: Joseba Sarriandianen *Hitzen ondoeza*. Niretzat euskal idazlerik hobere-na da eta asko maite dut.

## Bi urte espetxean egoteak zer kendu ditu?

Urte t'erdian nire alaba nola hazi den ikustea eta familiarekin, lagunekin... egotea.

## Etorkizunean nola gogoratuko duzula uste duzu kartzelan emandako denbora?

Ez da denbora galdua, ez dut pentsatzen bi urte galdu ditudanik. Kartzela zer den ezagutu dut, eta kontzientzia gehiago izatea eragin dit, bai euskal preso politikoan orloan, bai eta arlo sozialean ere.

**AGENDA ▶**

**JAIAK**

**Amasa.** Sanmartinen baitan, 12:00etan, Andoni Zuriarain eta Jokin Etxeberria amasarrik *Urki* eta Arkaitza Arteagaren aurka segan eta lokotx bitlzen. 14:00etan, herri bazkaria (txekor jatea). 23:30etik aurrera Etxabe anaia eta ondoren, Xabi dantzalekua.

**DEIALDIAK**

**Aduna.** Kultur Astearen baitan, 09:00etan, plazati abiatuta, mendi ibilaldia, Adunako inguruak ezagutzeko. 17:30ean, Korri, Xalto eta Brinko pailazoan emanaldia. Ondoren, barrikotea-taloak-gaztain erreak herriko frontoian.

**Alegia.** Loatzo eguna antolatuta dute. Egitaraua: 11:00etan, herriko trikitilariak eta bistulariak kaljiran ibiliko dira herrian zehar; 11:30ean, eskolako patioan bilduko dira; 12:00etan, kalejira erraldoia eskolatik Larraitz auzora, handik Kalebeherera teta plazan bukatuko dute. Bukatzeko, hamaiketako egingo dute herriko plazan.

**Berastegi.** Kultur Astearen baitan, 15:30ean, Basurde elkartearen Mus Txapelketa herriko azkarra; 16:00etan, erabilpen anitzeko gelan haurrentzako filma; 22:00etan, helduentzako euskal filma.

**Tolosa.** III. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astearen baitan, 18:30ean, ekitaldi artistiko ezberdinak (dantza, poesia, txotxongiloak, mimoa,...). 19:30ean, El grito antzerki taldearen *Deseo bajo los olmos* lana



**Herritarren eskulturarik gogokoena, aukeratuta**

**TOLOSA** ▶ Iragan hilabetearen Tolosa 750 Fundazioak martxan jarri zuen Koldobika Jauregiren kale erakusketaren baitan zeuden eskulturen arteko inkestatxoa. Bada, emaitzak plazaratu dituzte eta Geltoki kalea eta San Frantzisko arteko gurutze-bidean dagoen izan da bozkatuena, %18,7arekin. Eskulturara jartzeko lekuari dago-kionez, Zabalarreta parte izan boto gehien jaso dituenena, %23,8arekin. Orotara 347 boto jaso dituzte eta hauek izan dira zozketako irabazleak: serigrafia, Anotnio Millan Asenjo. CDak, Arantxa

Arakama, Imanol Odriozola, Lierni Azkoe, Aitor Ezeizabarrena, Iñaki Zabala, Heiko Callens, Nabil Haimane, Iker Sukia, Andrea Diaz de Eguilaz eta Richard Diaz de Guereñu. Eta kamisetak, Dori anton, Ramoni Mujika, Gloria Rodriguez, Isabel Camison, Maialen Severino. Inkestako lehen lau aukeratuak kontuan hartuz, datozen egunotan bilera bat egingo dute erakusketaren babesleen eta Koldobika Jauregiren iritziekin batera herri-ri finko geratuko den eskultura zein izango den erabakitzeke. IMANOL GARCIA

aurkeztuko dute, Leidor aretoan.  
**Tolosa.** Ipuin kontaketa, 17:00etan, Zerkausian.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketak ikusgai, hil honen 24a bitarte.  
**Tolosa.** Matxin Labaien tolosarraren oleozko pinturak ikusgai, Lanbroa tabernan, abenduaren 2ra arte.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Leidor aretoan, *El diablo se viste de Prada* filma, 22:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 67 09 15.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitza hegan.*

**Goiko irrati**  
**(107.0 FM)**  
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletzeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tarte

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**Klasikoaldia**  
 Musika klasikoko aukerarik zabalena prezio onenean

www.ekar.com

ekar

ARRASATE - BAZONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IRUÑA - TOLOSA